



Usurbilgo Udala

GZ.42/2021-0081
2021GDAT0001

DIRULAGUNTZEN BATZORDE OROKORRAREN

EBAZPEN - PROPOSAMENA

DESGAITASUNA EDOTA MENDEKOTASUNA DUTEN ADIN TXIKIKOEN OSASUN EGOERA HOBETZEKO TRATAMENDUETARAKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA

2021eko apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zuen Usurbilgo Udalak.

Deialdi honen xedea, mendekotasuna edota desgaitasuna duten adin txikikoen osasun egoera eta garapena hobetzeko egindako tratamenduen kostua edo kostuaren zati bat diruz laguntzea da.

Oinarrietan ezarritakoaren arabera, tratamendu hauek hartuko dira kontutan: fisioterapia, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotrizitatea, psikoterapia psikologia, terapia bereziak eta optometria-terapia bisualak.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 2 eskaera jaso dira

	Eskatzailea	Eskaera mota
1	I.M., M.G.	Gutxieneko dirulaguntza + osagarria
2	Z.C., M.	Gutxieneko dirulaguntza

Teknikariaren txostena kontutan izanda, hurrengo Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2021. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen banaketa proposamenaren berri emango da.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- 2021ean Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntza (GAO, 2021-04-07)



Usurbilgo Udala

GZ.42/2021-0081
2021GDAT0001

EBAZPEN - PROPOSAMENA

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak **EBAZPEN-PROPOSAMEN** hau luzatzen dio Alkate-Lehendakariari:

LEHENENGOA: Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako 2021. urteko dirulaguntza kopuru hauek onartzea:

	Eskatzailea	Onartutako dirulaguntza	Oharrak
1	I.M., M.G.	400,00 €	Dirulaguntza osagarria jaso ahal izateko muga gainditzen du.
2	Z.C., M.	400,00 €	--

BIGARRENA: Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

HIRUGARRENA: Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.480.231.03.05

LAUGARRENA: Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

BOSGARRENA: Aipatutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, ebazpen-proposamen hauek finkoak izatea.

SEIGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Usurbilen, 2021eko uztailaren 29an.

Batzordeko idazkaria
Garazi Etxeberria San Miguel